# Gaztezulo

RSS Youtube Facebook twitter Edukietara joan

- Hasiera
- AldizkariaK
- Iruditan
- BIDEOAK
- Bideo Lehiaketa
- Agenda
- IKA MIZKA
- Lehiaketak
- Blogak
- Kontaktua
- Harpidetu

- Jendartea
- Musika
- Zinema
- Literatura
- Artea
- Kirolak
- Teknologia
- Sexuak
- Drogak
- Iritzia
- Protagonistak

Bilatu

- Artikuluak >
- Txotx

## Erreportajeak



### Txotx!

Ane Iztueta, Hernaniko Institutua 148zbka. - 2014/2
Iruzkina egin 0 atsegin dut ez dut atsegin

0

Urtero bezala, aurten ere sagardotegi garaia iritsi da Hernanira. Bapo jan eta edateko irrikitan izango dira hainbat sagardozale eta, aldi berean, maiatza ahalik eta azkarren iristeko desiratzen egongo dira beste hainbat. Izan ere, batzuentzat festa diren hilabete hauek amesgaizto bilakatzen dira beste batzuentzat.

Hasteko, ezin uka daiteke Euskal Herriko sagardotegi eta tabernariek etekin polita ateratzen dutela denboraldi honetan. Asteburuetan bereziki, ostalariek poltsikoak bero-bero izaten dituzte. Gainera, sagardotegira joatea parranda egiteko eta kuadrilarekin biltzeko aukera ezin hobea dela argi dago. Baina txotx denboraldiaren abantaila horiek belztu egin daitezke zenbait hernaniarren ikuspegitik begiratuz gero.

Garai hau iritsi bezain pronto, kaleak zalapartaz betetzen dira astebururo. Jendea goizetik hasten da poteatzen eta iskanbila ateratzen. Hala ere, benetako arazoa gauarekin batera heltzen da. Kardaberaz kalea mozkorrez betetzen da, eta baten kantuak eta bestearen oihuak tarteko, bizilagunen loa kolokan geratzen da. Jakin nahiko nuke zer madarikazio klase botatzen dituen goizeko seietan jaiki eta lanera joan behar duenak, oraindik zenbait festazalek mozkorkeriatan jarraitzen duten bitartean.

Bestalde, sagardotegi denboraldiak zalapartaz gain, zikinkeria ere ekartzen du Hernanira. Jendeak ez du errespetu handirik erakusten herriaren garbitasunarekiko, eta botila hautsiak nahiz edalontzi mordoa ikus daitezke kaleetan. Hori nahikoa ez, eta kalean nabaritzen den pixa usaina ez da edonolakoa. Eta pixa zorrotak kale izkinetan badaude, gaitzerdi! Ez dira eta gutxi etxeko atarian pixa usain nazkagarriarekin topo egiten dutenak.

Laburbilduz, txotx garaiak ez du zapore bera izaten denon ahotan. Hernaniko kaleen eta bizilagunen ongizaterako zenbait neurri hartu beharko liratekeela deritzot. Gogoan eduki behar da parranda egiteak ez duela esan nahi gainerakoak errespetatu behar ez direnik. Besterik gabe, sagardotegi denboraldi berria ongi etor dadila. Gozatu, baina ez pasa.

Itzuli
Jaso gure buletina
idatzi zure emaila Bidali

gaztezulo.com

Otsaila

- Al
- Ar
- Az
- Og
- Or
- Lr

- lg
    - 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
    - The Aristocrats + David Rufes Trio
      21:30 Bilbo - Kafe Antzokia
- 7
    - Tristan Crowley
      20:00 Donostia - Caledonia
    - Lurrazpiko Festa
      20:00 Donostia - Gazteszena, DOKA, Bukowski
    - The Bon Scott Band (AC/DC Tribute)
      22:00 Bilbo - Kafe Antzokia
- 8
    - Lurrazpiko Festa
      18:00 Donostia - Le Bukowski, Gazteszena
    - Bertso saio didaktikoa + bertso bazkaria
      13:00 Bilbo - Kafe Antzokia
    - The Cherry Boppers + The Sweet Vandals
      22:00 Bilbo - Kafe Antzokia
- 9
- 10
- 11
    - Nashville Pussy
      21:30 Bilbo - Kafe Antzokia
- 12
    - '30 urte kolpez kolpe' dokumentala eta mahaingurua
      19:30 Bilbo - Kafe Antzokia
- 13
    - Jabier Muguruza + Mikel Azpiroz
      20:30 Bilbo - Kafe Antzokia
    - TV Ghost
      20:00 Donostia - DOKA
    - Zinemaldia.cat: 'Gernika bajo las bombas'
      21:30 Bartzelona - Girona Zinema
- 14
    - Muchachito & sus compades: el Ratón y Santos de Veracruz
      22:00 Bilbo - Kafe Antzokia
    - Depedro + Keu Agirretxea & Fignuh Experience
      21:00 Gasteiz - Jimmy Jazz
    - El Callejon del Gato + Grezian + Eriel
      20:30 Donostia - DOKA
- 15
    - The Groovies
      22:00 Bilbo - Kafe Antzokia
    - Pink Tones –Pink Floyd Show
      21:00 Gasteiz - Jimmy Jazz
    - Dünedain + Dirty Eyes + Blast Wave
      19:00 Donostia - DOKA
- 16
    - Dub Inc
      20:00 Bilbo - Kafe Antzokia
- 17
    - Kafe Antzokiaren Gutiziak: Motorama
      20:00 Bilbo - Kafe Antzokia
- 18
- 19
- 20
    - EH Sukarra
      21:30 Bilbo - Kafe Antzokia
- 21
    - Luke Amstrong
      20:00 Donostia - Via Fora
    - The Fakeband + Moonshakers
      22:00 Bilbo - Kafe Antzokia
    - Quique Gonzalez
      21:30 Gasteiz - Jimmy Jazz
- 22
    - Capsula + Niña Coyote eta Chico Tornado + Belushi + Diablo dee Jay
      22:00 Bilbo - Kafe Antzokia
    - ZPU + La Omega & DJ Rubireal feat. Michelle
      21:00 Gasteiz - Jimmy Jazz
    - Maika Makovski
      21:30 Donostia - DOKA
- 23
    - Bob Marley Day featuring The Original Wailers
      20:00 Bilbo - Kafe Antzokia
- 24
- 25
- 26
    - Lagun Artean Kantari
      20:00 Bilbo - Kafe Antzokia
- 27
    - Mode Moderne + Cosmetics
      20:00 Donostia - Le Bukowski
    - The Steepwater Band
      21:30 Bilbo - Kafe Antzokia
- 28

Datozen hitzorduak

- PIERROT otsaila 15 - 22:00
  GETXO - KANAIA ARATXU TABERNA  PIERROT
- Nashville Pussy otsaila 11 - 21:30



Bilbo - Kafe Antzokia

- '30 urte kolpez kolpe' dokumentala eta mahaingurua otsaila 12 - 19:30
  Bilbo - Kafe Antzokia




**Blogak**

 Besaulkitik Aitor Abaroa

**Zine estreinaldiak Euskalerria Irratian (2014/01/31)**

 Pauma saltsan Maialen Goñi

**Bakarrak. Bitxiak.**

 Colosuss Egoitz Gonzalez

**Telegram. WhatsApp ordezkatu nahi duen beste aplikazio bat**

 Ahaireak Saioa Baleztena

**Ibai Iturria: Euskal Herria eta Kataluniaren arteko harremanen zubia izan nahi dugu**

 Lizarra-Karatxi Karlos Zurutuza

**Tripolin ezer gutxi ospatzeko**

Cambiar

Tweets

GAZTEZULO
@Gaztezulo
Kamera piztu eta…
gaztezulo.com/berri
@bertsomovieda
Abrir

GAZTEZULO
@Gaztezulo
Adi!Ostegunean ab
Zinemaldia.cat ta sa
zozkatuko dugu sai
gaztezulo.com/lehia
@Euskaletxeabcn
Abrir

GAZTEZULO
@Gaztezulo
Leire Palaciosen (@
disko kritikak: @Iza
gaztezulo.com/kritik
#Neighbor
gaztezulo.com/kritik
@GHotsak
Abrir

GAZTEZULO
@Gaztezulo
Jon Plazaola: "Sexu
argi, garbi eta sarri-
gaztezulo.com/artiku

Twittear a @Gaz

- Hasiera
- AldizkariaK
- Iruditan
- BIDEOAK
- Eztabaidagunea
- Agenda
- IKA MIZKA
- Lehiaketak
- Blogak
- Kontaktua
- Harpidetu

- Jendartea
- Musika
- Zinema
- Literatura
- Artea
- Kirolak
- Teknologia
- Sexuak
- Drogak
- Iritzia
- Protagonistak

Bilatu

RSS Youtube Facebook twitter

*Gaztezulo 943 457250 info@gaztezulo.com*

Diseinu eta garapena: eragin.com